



Bazen behin Mexikoko Akapulko herrian Julito izeneko mutiko bat, umezurtza zen, eta bere amonarekin bizi zen. Amona oso zaharra zen eta Julitori iseka egiten zioten esanez: «Julito ama eta aita hilda eta amaorde zaharra e?» Hori esaten ziotenean Julito oso goibel jartzen zen, zeren eta bera bakarrik geratzen ari zela sentitzen zuen.

Egun batetan, udazken arratsalde batetan Julitori amonak bizikleta bat erosi zion esanez: «Julito ni hil egingo naiz laster eta eduki ezazu bizikleta hau nitaz gogoratzeko». Julito oso triste sentitu zen eta etxera joan zen. Sartu zen etxean eta ez zuen etxetik irten 8 egunetan, amonak hori ikusita oso triste jarri zen, tristurak gaixorik jarri zuen eta amona hil egin zen. Julitok orduan ez zekien nora joan.

Amonaren enterru eguna heldu zen eta jende asko joan zen, ze Julitoren amonak oso fama ona zuen Mexiko denean. Baina amonaren enterrura etorri zen familia bat berak ezagutzen ez zuena, Julitoren senideak ziren.

Oso familia jatorra ematen zuen eta andreak jostailuak ekarri zizkion Julitori, Julito oso harriturik geratu zen eta aldi berean oso pozik ere bai zeren ez zuen jostailu bat ere eduki bere bizi osoan, beno bai amama hil beharrean zegoenean jostailu bat erosi zion Julitori. Hori zen harrigarriena andre hura bere ama zela zirudien, baina Julitok ama bezala hartu zuen andre hura lehenengo momentutik.

Baina halako batean esan zion andreak Julitori.

—Kaixo, Julito, ni Angelita naiz eta zure aita zenaren lehengusina naiz.

—Nire aitaren lehengusina? Amonak ez zidan zutaz hitzegin.


—Badakit, zeren eta zure amona nirekin haserretu egin zen, zure aita hil zenean.


—Zergaitik?

—Zure aita hil zenean ni Euskal Herrira joan nintzelako bizitzera.

—Euskal Herrira? Non dago hori?

—Hori hemendik oso urruti dago baina nire senarra hangoa da.





—Eta nola du izena?

—Juan, baina Juantxu deitzen diogu.

—Juantxu? Ze izen polita.

—Julito entzun ezazu, nahi al duzu gurekin bizitzera etorri Euskal Herrira?



—Euskal Herrira?

—Bai, Euskal Herrira.

—Ba..., bai Euskal Herria nolakoa den ezagutu nahi dut.

—Ba etorri nirekin, bihar bertan joango gara Euskal Herrirantz eta.

Julito oso pozik zegoen Euskal Herrira joateko baina berak uste zuen Euskal Herria oso polita izango zela, paradiso bat bezalakoa. Pentsatzen zuen ez ziotela ez isekarik ez horrelako ezer ere egingo baina oso aldrebes zebilen. Euskal Herria beste edozein leku bezalakoa zen, hori bai, askoz ere politago eta lasaiagoa. Heldu zen eguna Euskal Herrira joateko eta oso urduri zegoen. Sartu ziren hegazkinean eta abiatu ziren Euskal Herrira, hango paisaia politak ikustera.



Heldu ziren eta denboratxo pasa ondoren Julito ikastolara hasi zen eta mutiko on asko ezagutu zituen baina baita Aitor izeneko mutiko oso maltzur bat ere, oso-osoa maltzurra. Bazekien Julitoren gurasoak ez zirela haiek eta txistua botatzen zion aurpegira esanez: Julito... Non daude zure gurasoak? Bakarrik al zaude? Nahi al duzu limosnatxo bat? —hori esan zion egun batean borrokan hasi ziren— Julito Aitorren gainera salto egitera zihoala Aitorrek la-bain bat atera bularrean sartu zion.

Julito mementu batean hil egin zen eta Aitor gartzelan zartu zuten. Baina hau esan zuen Julitok hiltzean: «Zer irabazi dut Euskal Herrira etorrita? Ezer ere ez baina nire herrian ere honela bukatuko nuen.»

Baina ez zen hau Julitoren istorio dena, Angelita ez zen bere aitaren lehengusina. Beno lehengusina bazen baina Angelita Julitoren ama zen eta Julitoren amona Angelitarekin haserretuta zegoen Julitoren aitarekin eduki zuelako umea. Baina Angelitak asko maite zuen Julito eta ez zen ahaztu Julitotaz. ■